



> Mundu zabaletik, «brebeta euskaraz»



NAIZ+

Mundu osotik heldutako elkartasun mezu ugari zabaldu dituzte Seaskako ikasleek brebeta euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzeko.

Batukadaren soinuaz lagunduta, Eiffel dorrearen azpitik



edo Pirritx eta Porrotx sudurgorrien ahotan iritsi zaigu brebeta euskaraz egin ahal izateko aldarrikapena.

Ipar Euskal Herriko hainbat ikasle egun hauetan egitekoak ziren brebeta.

Frantses azterketa salbu brebeta osoki euskaraz egin ahal izatea aspaldiko lorpena zen. Geroztik, Matematika eta Historia eta Geografiako azterketak euskaraz egin dira, baina kolegioen erreforma dela eta, zientzien azterketa gehitu da azken urteetan, eta hura frantsesez egitera behartuak dira ikasleak.

Protesta gisa, aurreko bi deialdietan zientzietako azterketako erantzunak euskaraz eman zituzten Seaskako ikasleek, eta Bordeleko Errektoretzak azterketok ez zuzentzeko mehatxua egin zuen. Seaskak oso larritzat jo zuen azterketen zuzenketa blokeatzeko erabakia. «Borondate politiko zehatz baten eragina izan da, eta zalantzarik ez dugu Parisetik heldu dela debekua», salatu zuen orduan Hur Gorostiaga Seaskako zuzendariak. Azterketak zuzendu behar zituzten hainbat irakasle ere ezinegona agertu zuten erabaki horren aurrean.

Azken hiru urteotan brebeta euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzeko protesta ugari egin ditu Seaskak.



> Apustu etxeen aurkako mezu baten arrakasta sareetan

Dani Gimenezek, Coruñaako Deportivo taldeko atezainak, mikrofonoen bidez apustu etxeen aurka zabaldutako mezua biral bihurtu da. Futbol talde horretako atezain Dani Gimenezek apustu etxeen aurkako aldarrikapena egiteko baliatu zituen mikrofonoak. Prentsaurrekoaren ondoren, atezainak negozio horren bo-



terea maiseatu zuen. Halaber, lokal horietako asko langile auzuneetan daudela gogorarazi zuen. «Baliabide gutxien dituen jendeaz aprobetxatzen dira», salatu zuen. Apustu etxe horiek kirol taldeak eta lehiak babestea gaitzetsi zuen, eta haien boterea geldiarazteko beranduegi ez izateko desioa adierazi zuen.



> Zegama-Aizkorritik mundura

Golden Trail World Series zirkuituak Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren gaineko bideo zirraragarri bat egin du. Mendi lasterketa horretako txapel-dun Kilian Jornetek berak Facebooken partekatu du bideoa. Joan den igandean abiatu zen Golden Trail World Series zirkuituaren bigarren denboraldia, Aizkorri-Zegama mendi maratoiarekin, hain zuzen ere. Ekainaren 30ean Mont Blanc-



eko maratoiaren txanda izango da, eta uztailean Italiara jo-ko du, Dolomys Run Skayrace lasterketara. Haren ondoren beste zenbaiten txanda izango da: Sierre Zinal, Suitzan; Pikes Peak, Ameriketako Estatu Ba-tuetan, eta, Ring of Steall Sky-race, Eskozian. Hitzordu ho-rien guztien berri eman du Golden Trail World Series zir-kuituak Euskal Herrian graba-tutako irudi ederren bidez.

> Zaratarik gabeko jolas parkea, autismodun haurrentzat

Autismoa duten hurrek he-rriko jaietan parte hartzea bultzatzeko asmoz, Getafeko Udalak (Madril) udalerrri ho-rretako jolas parkeko barrake-tan entzun ohi den musika itzali egingo du. Ekimen aitzindaria datorren asteartean gauzatuko dute, 17:00etatik 19:00etara bitarte-an. Hala, autismodun haur ho-riek jolas parkeko atrakzioetan gainerako hurrek bezala on-do pasatzeko aukera izango dute.



Autismoa duten hurren fa-miliek jolas parkeak eta atrak-zio zaratatsuak saihestu ohi dituzte, haur horien hipersen-tikortasunagatik. Izan ere, za-rata eta argi maila handia edo jendetza direla-eta, haien zen-tzumen-edukierak gainez egi-ten du. Sare sozialetan txalo asko ja-so dituen ekimen honekin, au-tismoa duten lagunek gainera-ko bizilagunekin batera jaiak ospatzeko aukera izatea lortu nahi dute.



> Euskara, gurera etorri direnen begietan

Gari Garaialde eta Ander Gille-ne Bostok Photo argazki agen-tziako argazkilariak Donostian bazkaltzen ari zirela gertatuta-ko istorioa jaso dute Twitte-rren. Parte Zaharreko taberna batean euskaraz «mundua kon-pontzen» ari ziren bitartean, ondoan zuten Aaron txikia adi-adi. Hego Ameriketatik etorri-tako familia bateko seme da



Aaron eta eskolan ikasitako hiz-kuntza atentzioz entzuten ari zen bi argazkilarien ahotan. Aa-ronen amak eman zien azalpe-na. «Liluratua dago, esaten ari zareten guztia ulertzen duela dio», esan zuen, semeaz harro. Argazkilarien txioari tiraka, halako beste egoera batzuk bi-zi izan dituztenak agertu dira Twitterren.